

# Armanak Uskara

edo

## Ziberouko Egunaria

1897 gerren ourtheko

Jinkoa eta Herria!  
Zuhurlarazuna eta lana!  
Eta biñi belhi Uskalduna!  
Iao! Iao!  
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o!

SALTZEN DA

Maolen  
DETCHERRY enian

Atharratzen  
MENDIONDO-SANTZENIAN

Prezioa : B. SOS



### BEGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.  
⊙ " Argizagi azken laordena.  
⊗ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.  
⊕ " Argizagi lehen laordena.
- 

### OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthailako* 14<sup>an</sup>; — HAOSTE, *martchoko* 3<sup>an</sup>; — BAZKO, *aphirilako* 18<sup>an</sup>; — ERROGAZIONIAK, *maiatzeko* 24<sup>an</sup>, 25<sup>an</sup> eta 26<sup>an</sup>; — SALBATORE, *maiatzeko* 27<sup>an</sup>; — PHENTEKOSTE, *arramaiatzeko* 6<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *arramaiatzeko*, 17<sup>an</sup>; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *azaroko* 28<sup>an</sup>.

---

### LAOR THENPORAK :

Martchoko 10<sup>n</sup>, 12<sup>n</sup> eta 13<sup>n</sup>. } Buruilako 15<sup>n</sup>, 17<sup>n</sup> eta 18<sup>n</sup>.  
Arramaiatzeko 9<sup>n</sup>, 11<sup>n</sup> eta 12<sup>n</sup>. } Abentuko 15<sup>n</sup>, 17<sup>n</sup> eta 18<sup>n</sup>.

---

### EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :


Ekhi ulhunte phartezkoa *baranthailako* 1<sup>an</sup>; ezta ikhousiren Uskal-Herrian. — Ekhi ulhunte osoa, *uztailako* 29<sup>an</sup>; ezta ikhousiren Uskal-Herrian.



OBSERVAT




HANITCH KHASU HOUNI




**Z**IBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount. Bigerren arraldia, 1893<sup>an</sup> hasirik, aorthen urhentzen da.

Bost ourthe hountan eman zathien edirengia hountarik landan emaiten dugu. Nahi dianak kartilleki josi ahalko du.




1893-1897

OURTHETAKO ARMANAKEN EDIRENGIA



Aita Sainthiaren erakaspenak.....	1, 33, 65, 97,	129
Mous de Etcheverry deputatia.....		4
Kongregazioniak eta gobernia .....		7
Errelijonia eta gobernia ; aphezak tribunaletan.....		10
Botz emailen eginbidiak deputatukan.....		12
Oraiko eskolak.....		16
Ligiko Zubia.....		19
Julien enperadore arnegata.....		36
Jaon Lavigerie, kardinala.....		38



Legarrak eta Frantziako zorra.....	41,	74
Fabriketako lege berria.....		44
Aphezak soldado.....		48
Santa Graziaren istoria .....		52
Jaon Esponda aphezakupia .....		67
Eskola khiristiak .....		70
1894 zen ourthia.....		78
San Blasi .....		79
Harizpe, marechala, eta Uskaldun chazurrak.....		100
Eskolatik presountegiala.....	105,	135
Legar berriak eta daigun jesaitia.....		108
Sant Antoni.....		113
Mousde Gorritepe Mendiko erretor zena.....		131
1896 den ourthia.....		139
Pelotakaz .....		142
Istoria, erasi, khountu zahar.....	30, 63, 94, 125,	158

Laborantchaz :

Uzten berriak, 1892 <sup>ik</sup> eta 1896 <sup>ala</sup> ..	22, 56, 85, 119,	150
Bazkagei berribat.....		25
Ogien mondolletan ezartiaz.....		27
Sagar ardoua.....		29
Laborarier akolku.....		59
Noula emenda lur sagar uzta .....		61
Lurren utzulziaz.....		88
Laboraribaten egiteko .....		91
Laborari botigoak edo sendikatak.....		121
Aihenaren eritarzunbat : arrota.....		153
Tresna berri .....		156





## OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- a.b. 3<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup>. eta 13<sup>min</sup>
- ☽ l. l. 10<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup>. eta 55<sup>min</sup>
- ☾ a. o. 18<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 26<sup>min</sup>
- ☿ a. l. 25<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 18<sup>min</sup>

## BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- a.b. 1<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 23<sup>min</sup>
- ☽ l. l. 9<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 35<sup>min</sup>
- ☾ a. o. 17<sup>n</sup>, goizanko 10<sup>or</sup> eta 20<sup>min</sup>
- ☿ a. l. 24<sup>n</sup>, goizanko 3<sup>or</sup> eta 53<sup>min</sup>



- |  |   |
|--|---|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1 Ostirale.</li> <li>2 Neskanegun.</li> <li>3 <b>Igante.</b></li> <li>4 Astelehen.</li> <li>5 Asteharte.</li> <li>6 Astizken.</li> <li>7 Ostegun.</li> <li>8 Ostirale.</li> <li>9 Neskanegun.</li> <li>10 <b>Igante.</b></li> <li>11 Astelehen.</li> <li>12 Asteharte.</li> <li>13 Astizken.</li> <li>14 Ostegun.</li> <li>15 Ostirale.</li> <li>16 Neskanegun.</li> <li>17 <b>Igante.</b></li> <li>18 Astelehen.</li> <li>19 Asteharte.</li> <li>20 Astizken.</li> <li>21 Ostegun.</li> <li>22 Ostirale.</li> <li>23 Neskanegun.</li> <li>24 <b>Igante.</b></li> <li>25 Astelehen.</li> <li>26 Asteharte.</li> <li>27 Astizken.</li> <li>28 Ostegun.</li> <li>29 Ostirale.</li> <li>30 Neskanegun.</li> <li>31 <b>Igante.</b></li> </ol> | <p>ZIRKONZISION</p> <p>s. Makaire.</p> <p><sup>sa</sup> Jenevieva.</p> <p><sup>sa</sup> Fausta.</p> <p><sup>sa</sup> Amelia.</p> <p>APHARIZIO.</p> <p><sup>sa</sup> Melania.</p> <p>s. Luzien.</p> <p>s. Julien.</p> <p>s. <i>Marzien</i>.</p> <p>s. Teodoso.</p> <p><sup>sa</sup> Taziena.</p> <p>s. Leonze.</p> <p>s. Hilera.</p> <p>s. Phaole, erm.</p> <p>s. Marzel.</p> <p>s. <i>Antoni</i>.</p> <p>J. Phetir. Err. Jartia</p> <p>s. Kanut.</p> <p>s. Fabien eta Sebast.</p> <p><sup>sa</sup> Añes.</p> <p>s. Bizente.</p> <p>A. B. Ezkontz</p> <p>s. <i>Timote</i>.</p> <p>J. Phaoler kon.</p> <p>s. Polikarpe.</p> <p>s. Johane Kris.</p> <p>s. Amadeo.</p> <p>s. Franz. Sal.</p> <p><sup>sa</sup> Martina.</p> <p>s. <i>Petiri Nol</i>.</p> |
|--|---|

- |   |   |
|---|---|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1 Astelehen.</li> <li>2 Asteharte.</li> <li>3 Astizken.</li> <li>4 Ostegun.</li> <li>5 Ostirale.</li> <li>6 Neskanegun.</li> <li>7 <b>Igante.</b></li> <li>8 Astelehen.</li> <li>9 Asteharte.</li> <li>10 Astizken.</li> <li>11 Ostegun.</li> <li>12 Ostirale.</li> <li>13 Neskanegun.</li> <li>14 <b>Igante.</b></li> <li>15 Astelehen.</li> <li>16 Asteharte.</li> <li>17 Astizken.</li> <li>18 Ostegun.</li> <li>19 Ostirale.</li> <li>20 Neskanegun.</li> <li>21 <b>Igante.</b></li> <li>22 Astelehen.</li> <li>23 Asteharte.</li> <li>24 Astizken.</li> <li>25 Ostegun.</li> <li>26 Ostirale.</li> <li>27 Neskanegun.</li> <li>28 <b>Igante.</b></li> </ol> | <p>s. Iñazio.</p> <p>KHANDERALLU</p> <p>s. Blasi.</p> <p><sup>sa</sup> Jana, Val.</p> <p><sup>sa</sup> Agata.</p> <p>s. Aman.</p> <p>s. <i>Romual</i>.</p> <p>s. Johane Mat.</p> <p><sup>sa</sup> Apolina.</p> <p><sup>sa</sup> Eskolaztika.</p> <p>A. B. Lourdakoa.</p> <p>s. Tita.</p> <p>s. Jilbert.</p> <p><i>Setuajesimo</i>.</p> <p>s. Faosti.</p> <p><sup>sa</sup> Juliena.</p> <p>s. Hiji.</p> <p>s. Flavien.</p> <p>s. Konrad.</p> <p>s. Eucher.</p> <p><i>Setsajesimo</i>.</p> <p>J. Petir. Ant. Jart.</p> <p>s. Petiri Dam.</p> <p>J. MATHIAS, ap.</p> <p>s. Zezaire.</p> <p><sup>sa</sup> Batilda.</p> <p><sup>sa</sup> Onorina.</p> <p><i>Kinkajesimo</i>.</p> |
|---|---|



MARTCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- a. b. 3<sup>n</sup>, eguerdi eta 6<sup>m</sup>.
- ☽ l. l. 11<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 38<sup>m</sup>.
- ☾ a. o. 29, arratseko 9<sup>or</sup> eta 37<sup>m</sup>.
- ☿ a. l. 25<sup>n</sup>, eguerdi eta 9<sup>m</sup>.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.




- a. b. 2<sup>n</sup>, goizanko 4<sup>or</sup> eta 32<sup>m</sup>.
- ☽ l. l. 10<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 36<sup>m</sup>.
- ☾ a. o. 17<sup>n</sup>, goizanko 6<sup>or</sup> eta 34<sup>m</sup>.
- ☿ a. l. 23<sup>n</sup>, arratseko 9<sup>or</sup> eta 57<sup>m</sup>.



1 Astelehen.	s. LEON, Baion.	1 Ostegun.	s. Huges.
2 Asteharte.	s. Zinplize.	2 Ostirale.	J. K. Odol Prez.
3 Astizken.	HAOSTE	3 Neskanegun.	s. Richart.
4 Ostegun.	s. Kasimir.	4 <b>Igante.</b>	PASIONIA.
5 Ostirale.	Elhorr. Kbor.	5 Astelehen.	s. Bizeto Ferr.
6 Neskanegun.	s <sup>a</sup> Koleta.	6 Asteharte.	s. Sisto.
7 <b>Igante.</b>	GOROZUM 1 <sup>a</sup>	7 Astizken.	s. Herman.
8 Astelehen.	s. Johane J.	8 Ostegun.	s. Albert.
9 Asteharte.	s <sup>a</sup> Frantzesa.	9 Ostirale.	A. B. Dolor.
10 Astiz. IV Th. B.	40 Martirak.	10 Neskanegun.	s. Makari.
11 Ostegun.	s. Konstanti.	11 <b>Igante.</b>	ERRAMU.
12 Ostir. IV Th. B.	J. K. Lantza eta Itz.	12 Astelehen.	s. Jules.
13 Nesk. IV Th. B.	s <sup>a</sup> Ufrasia.	13 Asteharte.	s <sup>a</sup> Ermenegild.
14 <b>Igante.</b>	Gorozum. 2 <sup>a</sup> .	14 Astizken.	s. Justeñ
15 Astelehen.	s. Zakaria.	15 Ostegun.	Osteg. Saintu.
16 Asteharte.	s. Ziriaka.	16 Ostirale.	Ostir. Saintu.
17 Astizken.	s. Patrik.	17 Neskanegun	Nesk. Saintu.
18 Ostegun.	J. Gabriel, ark.	18 <b>Igante.</b>	BAZKO.
19 Ostirale.	s. JUSEF.	19 Astelehen.	s. Leon IX.
20 Neskanegun.	s. Joakimo.	20 Asteharte.	s. Teotimo.
21 <b>Igante.</b>	Gorozum. 3 <sup>a</sup>	21 Astizken.	s. Anzelmo.
22 Astelehen.	s. Kiktruda.	22 Ostegun.	s. Soter eta Kaiot.
23 Asteharte.	s <sup>a</sup> Pelajia.	23 Ostirale.	s. Jorji.
24 Astizken.	s. Agapit.	24 Neskanegun.	s. Zerazi.
25 Ostegun.	A D. M. ANONTZ.	25 <b>Igante.</b> 1.	J. MARK, Eb.
26 Ostirale.	J. K. Zaori Sk.	26 Astelehen.	s. Klet & Marz.
27 Neskanegun.	s. Johane Dam.	27 Asteharte.	s. Zerazio.
28 <b>Igante.</b>	Gorozum. 4 <sup>a</sup>	28 Astizken.	J. Phaole, K.
29 Astelehen.	s. Pastor.	29 Ostegun.	s. Petiri, m.
30 Asteharte.	s. Amadeo.	30 Ostirale.	s <sup>a</sup> Katalina.
31 Astizken.	s. Benjameñ.		



## AITA SAINTIAREN ERAKASPENAK



**B**HOTZIAN dien guziek Eliza, egiaren habe eta egarzola denarekin bat izatia, ehi baztertuko dira libertatia hitzamaiten diengezur ountzi beraiez sokhiduraren pian diren heterik. Haboro dena Elizan den jinkozko indarraz berak phartelianturik, goithuko dutie zuhurtarzunaz nahikhiden inganioak, eta korajiaz haien borthiztarzunak.

Aoher lizate ikhertzia noula eta zer heñetan katholicoen arteko aharrek erazi dutien oraiko egitekoen urhatsak. Bena erran daiteke balukiela gaichtoek bekhoki gutiago, eta etzukiela hainbeste arrabaska athetu, karitatziaz ari den fedia tinkago eta biziago izan baliz arimetan, eta ezpaliz agitu hañ lazukeria handibat Elizak ezari azturer jarraikitzeke. Jinkoak detsala joan direnek erakats dezen geroan zuhurkiago kobratzen !

Oraiko bizitziaren arteko egitekoetan sarthuko direnek bi gaintiri beharko die ihesi egin artha handienarekin : hourak dira zohogi izuna (edo prudentzia falsa) eta behargabetarik burhagertzia.

Badirade ouste beitie eztela houn agerian buhurtzia photeretsu eta jabe den gaichkiari, beldurrez, dioienaz buhurtziak gehiago ozki eraz ditzan gaichkigiliak. Halako gizounak Elizaren althe edo aitzia dira? Erran ezliraiteke. Ezi, aldebatetik, katoliko sinhestiaren jarraikizale agertzen dira ; bena ber denboran nahi lukie Elizak haizu eitzia ditzan hari aitzia doatzen erakaspenn batzu. Hasperenez ari dira fediaaren galtze eta aztura hounen sokhiduran gañen ; bena eztie den gutieneko

acholik halako gaitzari sendagallu zerbaiten ekharteko, eta ere ezta bekhan agitzen noun ezdutien sordeizten, edo mugagaintizko lazukeria, edo echabatze galgarribatez. Eztie ihour ere haizu eitzen Elizarentako dien amoriaz dudatzera, eta bethi badie zerbait mespere-tchu agertzeko Aita saintiaren eretzian.

Gizon hoiien zohogia (edo prudentzia) da egiazki Jaon dona Phaole apostoliak deitzen ziana aragiazko zohogia, eta arimaren herioa, ezpeita eta izan ezpeitaiteke Jinkoaren legiaren pian. Ezta deus gutiago houn denik gaichkiaren itzal erazteko holako zohogia baizik.

Ezi, etsaien geia da, eta haietarik hanithek goratik aithortzen die, berbera egiazko den errelijione katolikoaren zaplatzia. Hortaratzeko ezta deus eraziko eztiarik. Beitakie hanitch ountsa haboroago ikhara eraziko dutiela nahikhidiak eta hanbatenez ehiago burutuko dutiela bere gei galgarriak.

Arren « maite dienak aragiazko zohogia », eta uduri erazten eztakiela khiristi bakhoitzak izan behar diala Jesus Christen soldado pherestubat; gogoan dienak goitzaler emaiten diren dohañen ukheitia, ihabaliak bezala bizitez eta gudukan ez pharte hartez; hourak eztirade gaichtoen armadari buru egiteko houn, bena orano laguntzen dutie.

Beste elibat, aitzitik, eta hanichtto dira, gorthura izunbatek erazirik, edo, mesperetchugarriago lizatiana, bere kobratzeko gisaren arao eztiren gogoan agertzez haiena ezten jabe goabat hartzen die. Ouste die Eliza kobratu behar dela beren gogoer eta nahier jarraikitzez, hañ ountsa noun nekez egarten, eta nahigabatarik ounhesten beitie hetarik baztertzen direnak. Gizon haien indarkak aohar dira eta berak gorago aiphatiak bezañ mesperetchugarri.

Hala aritzia ezta zuzen den jabegoari jarraikitzia; jabegoa haren ukhatzia da eta emaitia zuzengaber, egiazko ebaskeribatez, alkhategoa espiritualaren pho-



teriak, Jinko hounak berak bethikoz bere Elizan ezari eta ihourk lañoki haots ezlirokian ordriaren damu handitan.


Ouhouratu dirade, gudukala deithurik hartara joaiten direnak, azkarki ouste dielarik behargabiaren indarrak badukiala urhentzebat, eta goithurik datekiala egun batez, zuzenaren eta erreljioniaren saintutarzunaz. Berthute zaharraren araoka ari dira, erreljioniarren begiratzeko gudukatzez, berheziki khristigoarithaigabe eta bekhoki handienarekin jatzartzen, eta bere photerian eroririk den Aita Saintia halaber therritatzen dian khidegoaren aitzia.

Holako gizounak lehiatuki jarraikitzen dira obedienziazko cheder, eta beraortarik eztie deus erazten. Malsotarzun mengoa hori, iraitte eta koraje tink batekin, beharrak dira katoliko guzietan, deusetan ere ezditian ukha zer naki gaitz boullta gerthapenek erazirik.

Hartakoz ountsa nahi gunuke guzien arimetan barnaki sartzen ikhousi, Jaon dona Phaolek deitzen diana ezpiritiazko zohogia (edo prudentzia). Berthute horrek ikhasten deiku, bizitze hountako egitekoen kobratzian, ikhousgarrizko heñ doibatetan edeiten, etsimentiala bai beldurriala bouklatzen gutian bihotgabiaren eta burhagertze aoherbaten artetik.



### MOUS DE GORRITEPE, ERRETOR ZENA



**A**ORTHEN hil izan da Ziberouko aphez ouhouragarrienetarik bat eta orotako zaharrena : Mous de Gorritepe. Barkochen sorthurik 1808<sup>an</sup>, apheztu zen 1834<sup>an</sup>, maiatzeko 24<sup>an</sup>. Haren arima ederra utzuli da Jinkoaganat azken baranthailako hamazazpian arrastiriko bi orenetan. Luzaz eri egonik zen, eta egun

hartan, boullta gaichtobatek harturik, jaon bikaria azken othoitzer ari zelarik, hil da hañ eztiki, ezpeitira oh artu azken hatsa eman dian mementoaz. Hartan galze handia egin du goure aphezkuiperriak : ezi aphez jakintsienetarik eta saintienetarik bat zen.

Haoste egunaz egin zien haren ehortzeta. Parropia-koak oro han ziren, Maole kantonadako aphezak eta Atharratze ungunetako haboroak bere doienarekin. Mezatik landan, Maoleko jaon archipretrak haren ilhotsa eman du hitz gutiz eta mintzo zelarik nigar ountsatto izan da.

Goiz danik joan zen Oloroeko kolejoalat ustudiatzera eta bethi hanko eskolatiar hounetan bilhatu. Bena seminario handian baizik etzen agertu zer gizoun zen. Mous de Saint Guilyk, hanko gehienetarik bat, eza-gutzale houn, eztzian luzatu haren arramarkatzia, eta teologian eskolier jakintsiena edukitzen zian. Aphezgoako jakitatek etzien neke unerik haren enthelegu bizi, erne eta zorrotzarentako.

Apheztu, eta nahiz hari ohartu ziren eliza katradaleko, igorri zien bikari Maoleat. 1834<sup>an</sup> zen. Bost ourtheren buruko Mendiko erretortu, eta hantik etzen aldatu behar. Haren gehientako ezpazen hori igarangiabat bezala baizik zerbait kargu goragoetara, gogoan hartu zian han zukiala bere muga. Haren enthelegu zabalak, jakitate eta berthutek hel erazi zukien aphezkuiperriko kargu goragoetat, eta Jaon Lacroix zenak eskeintu zeitzon zounbait ez aphurrenetarik. Bena ororentako ezian baratu. Deusek ere eztzian Menditik joaitera erazi ahal ukhen.

Aphezkupiak ezin goithuz erretorarren gutinahia dohaintu zian han berian. Eman zeitzon ouhoure elibat, egin vice-archiprêtre eta kalonje. Azken kargu hounen markak ezutu behin baizik ezari, aphezkupia jin zenian Mendia, haren aitziniala joaiteko, eta orano etzen hartaratu, adichkide haien emaile zenak, ountsa eta ountsa othoiturik baizik.

Zer erranen dugu orai erretorgoa, berrogeita hamazazpi ourthe iraň dian horrez? Bizi izan da bere aphez etchian fraidebat komentian bizi den bezala. Etzen hantik jalkhitzen elizalateko baizik, eri ikhousteko, eta zounbait paseiu tchipi batzutako. Etzen parropiako



mugetarik aitzina joaiten, eta harentako mundia oro Mendin zen.

Etzen khumitez ihourat ere joaiten, bena berak gogo hounez bestiak khumitatzen zutian eta batere ez gairchki tratatzen. Zer nahi thenorez ager litian haren etchera, bethi batzarre houn egiten zian. Lehenagoko

denboretan bezala hartzen zutian jiliak, grazia ezinago houn eta jeneroustarzun mugagabe batekin. Haren mahañian jarri direnek badakie zerbait.

Egun oroz, udan negian bezala, elizan zengoizanko sei orenetako berantenez Han zegoan goizaldi pharte handiena, berheziki katichima egin behar zianian, eta egiten zian astian zounbait aldiz. Maite zian hanitch erreligionaren gañen haorren eskolatzia : jakintsu tchípielibat bilhatzen ziren. Ehi ezagutzen zutien haren katichimankan izanik zirenak.

Arrastiri oroz ere bazoan elizalat Sakramentu saintiaren aitzinian zounbait orenen eroaitera, han erraiten zutialarik ofizioa eta konderak. Hobeki urhent ziroana hain ountsa hasirik zen eguna ?

Hanitch gorthurareki mintzo zen pheredikagiatik : bizio gaichtoak, nahaskeriak eta eskandalak zehatzen zutian apostolubatek egin lukian bezala. Bere aphez ezinago chuchenezko bizitzia zelakoz mintzatzen ahal zen bere hounian eta eztziren bethi haren erranak balakiak, hullanik ere. Behin beno haborotan deithoratu ziren eta deithoratuko haboro orano, ezipaliz haren bizitzia izan erraiten zutianen arao. Ari zenian oro behatu behar ziren, eta elhestazaliak bertan ichil erazten zutian. Behin berettera joaiten beitzeron sakristiñalat pherediku denboran, utzulerazi zian erraiten zerolarik : «Egon zite heben zu ere, baduzu bestek bezain beste entzun beharra.»

Kobesatzen zianian bestelakorik zen : han pheredikagian bizi zen bezain ezti.


Ihoun ere ezte eliza saintiaren errespetia noula Mendin, haren arrahentarzunari eskerrak. Hanbat sordeiz, gutiñibat ere ahasten zianarentako ; bazian zalhe orhiterazlia.

Orok bazakien zouñen guti etchekiten zen mundu hountako gaizer, eta zouñen gogo hounez emaiten zian bazutianetarik. Praobe hil da praobe bizitu zen bezala.

Houn zen zerbait erranik izan ledin aphez saintu eta houn (zounbat nahı garratz artetarik) haren gañen. Jinkoak detsala Ziberoak eman dezan houra zen bezalakaphez hanitch, eta Mendiko parropiak begira dezan haren etsenplu eta erakaspenen orhitzepena !



## ESKOLATIK PRESOUNTEGIALA



**I**KHOUSI dugu azken armanakian zer huntzeria zadukan gorri aiphatu eta ministro ohibaten erranak : « Egiguzie eskol'etche, orano eskol'etche, bethi eskol'etche : ezi eskolabat haborok egiten du presountegibat gutiago. » Ikhousi dugu noula eskol'etche haboro eginbadie, gaichkigiliak ere zinez emendatu direla, eta orano lehen beno gutiago araoka hatzamaiten dielarik.

Eztu aspaldi goberniak inprima erazi dıala herrieskoletan emaiten den erakaspena zertan zen 1894-5 ourthian. Harartinoko bost ourthetan eskola laiko publikoak emendatu dira mila eta hirour hogeı eta bostez ; fraide eta serora eskola publikoak (beita orano hetarik), aphaltu dira bederatzu ehunez hullan. Arte hartan egin die bost ehun fraide eta serora eskola libro. Bazen orotan, azken ourthiaren urhentziari buruz, 15 mila eta 772 fraide eta serora eskola libro, 3 mila eta 57 eskola laiko libro (hourak ere tchipitzez ari dira), 5 mila eta 861 fraide eta serora eskola publiko, eta 61 mila eta 619 eskola laiko publiko.

Ikhouston den bezala ezta eskola mentsik ; eta ez orano aski, dio khountu hoiem emailiak. Beharko da bestalde budjetian sar erazi hogeita hamarbat miliou despendio haborokin errejenten phakien gorentzeko. Herri eskoletan emaiten den erakaspentak jadanik

jaten beitu ehun eta 85 miliou, bertan iretsiko du berrehun eta 15. Eta eskol'etchen egiteko jesaiten intresa berrogeita hamar miliou beita, botian badate berrehun eta 60 miliouren gastia.

Zertara heltzeko horik oro? Goberniak eskolatu nahi dutialakoz haor guziak, hobe bilhakaturen direia? Eskola etche haboro bada, bai, gaichkigile haboro ere.

Bena berheziki izigarri eta nigar egingarri dena da gazterian direla gehienik bilhatzen gaichkigiliai emendatuz. Houna gobernuko gasetan berian (*Journal officiel*) harturik chifru zounbait; erakousten die laor ourthetan barnen zounbatez hamasei ourtheren peko gaichkigilen nonbria handiturik den.

Mouthikoetan	1886 <sup>an</sup>	khountatzen zien	4937	kriminel
»	1887 <sup>an</sup>	»	»	5781
»	1888 <sup>an</sup>	»	»	6342
»	1889 <sup>an</sup>	»	»	6743
Neskatiletan	1886 <sup>an</sup>	»	»	659
»	1887 <sup>an</sup>	»	»	951
»	1888 <sup>an</sup>	»	»	1009
»	1889 <sup>an</sup>	»	»	1097

Tribunaletako aferen chifriak ere berhoula goraturik :

1838 <sup>an</sup>	izan ziren.	79,000	afera.
1888	— — . . . . .	231,000	—
1890	— — . . . . .	247,000	—
1894	— — . . . . .	253,000	—

Chifru horik ezin ukhatiak dira, goberniak berak emanik; geroztik ountsaz emendaturik dira, eta ezta-  
kit nouiz baratzen diren. Eta eniz mintzo nour bere burien erhaile direnetzaz. Haietarik izan da bethi eta izanen ere, bena eskola berriak ezariz geroztik hanit-  
chturik dira: ezi balinbazen 4,690, diala hoheitabost

ourthe, bazen 1889<sup>an</sup> bietan haboro kasik, 8,180, eta 1893<sup>an</sup> khountatudie 9,200. Eztira berere jente gehi-  
tiak bere burien erhaile : bi zentzutako hamabi eta  
hamazortzi ourthetara dranoko gaztiak badira, lehe-  
nagoko denboretan ezeptizen menturaz bat berrogei  
ourthez.

Eztaiteke besterik ; oraiko bizitzian jentiak eztu kasik  
beldurrik jandarmentako baizik, eta gaichkia egiten  
esparantchareki, hourak ere gizon direlako, eztrate-  
kiela hatzamanik.

Bena gaichkia hola handitez badoa, nourk du oge-  
na ?

Beha gitian, jakiteko gobernaren althekoer. Gober-  
nutiar gasetegilebatek chifru gorago ezari tudan hou-  
rak eman, eta izkiribatzen zian : Oraí gaichkia eginik  
da ; egunko eguneko bizitzian eztakie nekezalek bath  
egiten ; aberatsa ezta nekezaliaz arrankuratzen ; ezta  
haboro ountsaren maiterik, ez eta geroko bizitziaren  
beldurrik. Errelijioneko sinheste ederrak idoki tie  
oraiko gizounen bihotzetarik, eta deus ere eztie ezari  
haien ordaritako ; karitatia den berthute ederra gutit-  
zez badoa eta ezta orotan bekhaizteria baizik. Arren  
goratik erraiten dugu gaiza houn ororen irallzaler :  
gabetzen dutienian gizounak urgaiagarri diren sinhes-  
tez, eginbide hersibat dela zerbaiten ordaritako emai-  
tia. Eta handizki ogendun dirade herriaren eretzian,  
bere lagunak igorri dutienak munduko gorabehereta-  
rat, aiherkuntiak, bekhaizteria eta plazer galgarrien  
egarria bihotzian. »

*Le Temps* den gaseta halaber mintzo zen diala zon-  
bait hilabete : « Eskolatiarrentako mourala (katichi-  
maren ordari ezari dien erakaspena da) gaiza hugun-  
garri, behargabetakobat bezala da, buruzagiek ikhas  
erazten diena, bakhoitzaren egingei eta zuzenen tinki  
zaphaturik etchekiteko. Ezta arren handi, hañ apha-  
l edukiten dien jakitiatiak gogoetan ezari deien eginbi-  
den ezagutzia, ukho erazten badie, hamabost hoge

ourthetako gizoun gaztetan, lankhietako eta ostatie-tako etsenplu tzarrek, eta adinak berak daduzkan boullta gaichtoek. Laiko den izenaz egin dugu erreljijonegabe izenaren bardina. Haorren eskolatzetik idoki dugu egiazko berthutiaren ezagutzia, bazterrilat eitzi tugu erreljijoneko sinhestiaren indar ezin ukhatiak... » Horik dira bi gobernutiarren erranak. Bardinetik Pariseko bi alkhatate gehienek izkiribatu die haorren oraiko eskolatzian gañen. Luzegi lizate haien erranetarik izkiribatzia ; bena urhentu gabe nahi dutut heben ezari, hitzez hitz, *L'Instruction Primaire* den errejent eta inspeturren gasetak zioana diala ourthebat : « Populiak dutian hoununiak aphaltzez badoatza ; eta haor kriminelen nonbriaren thai gabe gorentziak deragoka mene handibat algarren arteko bizitziari. Alabena eskolak eztu behar lukiana oro egiten mene hori buhurtzeko ; eta egiaren erraiteko, arimarentako diren errakaspinak errejentek eizten tie, bere eskolierer cholliki etsameñen ountsa eroan eraztia gatik. Azkenian mene horri ihes egiteko, ordu da buhurtzia, eskola tchipietarik hasirik eta gehienetara drano, oraiko izatia inkaratzen dian boulltari. »

Eztut halarik ere erranen eskola berañez gaiza galgarribat dela, eskolak emendatuz geroz gaichkigiliak emendatu direlako. Eskola, beste hanitch gaizarren antzo, houn edo gaichto da, han erakasten denaren edo eztenaren arabera. Bena, ihourk ezin ukhatia eta gorago ikhousi dugun bezala, eskola jinkogaben erazlek edo althekoek aithortzen diena da, eskola edo jakitatia bera eztela aski beitharen hazteko eta chuchentzeko. Bada jakitatebat mundu hontako jakitiatik oro beno beharragoa dena, ikhasten deikuna zer giren, nourat goatzan, eta iferniaz mehatchatzen gutiana, ezpagira goure bizitzian ountsaren arao kobratzen. Oraiko eskoletan ezta aiphu ez Jinkoaz, ez arimaz, ez geroko bizitziatz. Sinheste horik haorrari



idokie tie. Estonatu behar deia arren, mundu hounta-ko egitekoak geroago eta haboroago khordokatzez badaotza ?



## 1896 DEN OURTHIA



**A**RHENTZEN ari den ourthia tchar bada Uskal Herriko laborarientako, ezta politikaz aiphu, hanitchez hobe. Hitzaman zeikien hanitch okherreria chuchentuko zutiela ; fountzian deusere eztie egin. Khanbera biek, berheziki deputatienak, biltzarrenetako denbora oro jan die nahikhiden arteko aharretan. Halaz ikhousi dugu Ribot-en ministerioa erorten, eta haren ordari Bourgeois gorbeltza sartzen ; azken hountarik landan, jin da orai duguna, *Méline*, laborantchako ministroa, gehien delarik.

Meline bere beitharik, lehenago estakuru handia-goak balin bazutian, aski chuchen da eta gogoan hartu du, aldebatetik errepublikatiarren artian diren aiherkunten itzal eraztia, eta bestetik, ororen gañetik, laborarien hounetan aritzia.

Bethidanik hortarik ari izan da armanak tchipi hau eta ountsa nahi gunuke Meline denaren egingeak laborantcharen eretzian ezditian eror lurrialat, eta burutan joan ditian. Bena beldur gira bere gei hounetan baratuko dela.

Ezi baduke traba hanitz, traba hanbatenez handia-goak ezpeita dudatzen ere badirela. Ezta goure oustez behar bezalako potro hartu lanaren hountzeko. Beste khanberabat baliz hel laiteke menturaz zer bait etara ; orai koarekin eztuke hoberik nahi badu majoria begiratu.

Behinkoz badutu bi lan gaitz : Frantziako finantzak

chuchentu gastien ahalaz tchipi eraztia eta laborantchari heltzia.

Finantzen chuchentcheko, behar lizate lehen lehenik, gastien edo joanphiden budjeta arhintu chunbat miloutako behargabe diren gastu elibatetarik. Hala-korik eztiroke Meline denak : ezi gastu haietan nahasirik direnak ezlutuke haboro althe, eta adio majoria. Ezta arren hortaratzeko bidebat baizik, legarren gorentzia. Areta hain dira gorenturik noun aberatsak praobiak bezala ezinturik beitira. Aitzina eman zian hatsarrian arrandan gañeko legarbat ; ezpeitzien houn hartu, ihardetsi zian orobat zeiola, bena laguntu beharko ziela besterik zerbaiten bilhatzen.

Noula egin ziloa handitzez beitoa, badukegu legar berri ; ezi budjetaren hountzaliak bildu direia bai, Finantzetako ministroa hor da kredit berri edo diharu galthobatekin. Behar da hirour miliou *enseignement primaire* denaren zerbitzietako, milioubat eskola etchetako kesa bankarrotari buruz delakoz, esta beste hanitch holako. Erran den ministro horrek nahi lutuke signaduren *légalisations* direnak hounain beste phakerazi.

Aigardentan gañen zounbaitek nahi lukie ezari ezta-ki zounbatez handiagoko legarbat, harek berak eman beiliro miliart baten heña. Legar haren itzalian guber-nuko kargulantak, orai artino sobera sartzen direnak goure egitekoetan, bethi gañian guntuke, nouiz nahi etcheko zokhoetan ikhertzen, gaiaz egunaz bezala. Legar haren medioz, dioie erazlek, gobierniak baluke orai diren ziloen thapatzekoa, eta legar fountsetakoaren ordaria.

Bena zountbat nahi horik egiak izanik ere, eta gizoun zentzatu haboroek dioie erhokeriabat baizik eztela, fountzetako zerga idokirik laborariak hobeki diratekia ? Ezteragokeie zergek laborantchari mene (edo lanjer) handiena. Haboroetan ereitze muta elibat egiten dutie galtzetan, zounbat nahi primak emaiten

dutien. Laborantchako galtziak oro boti heltzen dira laor ehun miliouetara, laborantchak baduke orano hirour ehun miliou galze. Zergen tchipitzia houn balinbada, ezta aski. Segur bi ithegunetan den hamar liberaren unguruneko legarra gora da; bena ezta teke gaitza handi alhorrak mouzkin ederra emaiten badu. Ezta arren legarretan minik handiena. Orano laborariak mouzkin ederrik idokiten du kabaletarik; bethi hala datekia? Hurrunago aiphatzen dutugun Ameriketako kabalen sartziak bertan tchipi eraziko dutie, deusetaratuko ere behar bada, ezpada horri gobernia ohartzen.


Ourthe hountaz mintzo girenaz geroz dugun bihitz Uskal Herrian izan direnez. Bada Ziberoan franko herri aldatu beituie kontseller haboroak. Azkenekoz sartzen zaie gogoan botz emailer ezte la azki gobernukoen althe izatia egitekoen burutan joan erazteko. Atharratzeko kantonadan berheziki chouriak burutu dira herri handienetan; zerentako ezte la burhagertu Atharratzen berian eta Larrañen? Segur sarthuko ziren bat edo beste kontsellu hoietan, Atharratzekoan phuru.

Erran behar dugu hola ari izan badira Ziberotarrak, eskerrak behar dutugula Jaon Renaud d'Elissagaray denari. Han hebenka egin dutu pherediku ederrak, eta orotan, herri tcharrenetan ere jentiak jin zaitzo saldoka behatzera. Ezari dutu kartilla tchipibatetan oraiko gobernukoen gainti gehienak, eta goure laborariak, ountsa eskolaturik, ezdutie heben harat bere buriak eitziko noula nahika erabiltera.

Uskal herriaz mintzo nizanaz geroz etzait ahatze behar goure Herriko bi deputatiak, ordartino mutu izan baziren khanberan, mintzatu direla; ezte la egin pheredikagiatik, ezeta ezte ziren pheredikiak luze bena ahoa zabaltu die. Gouria aiphatzeko, Jaurès deputatiak galtho ari beitzen eia bere departamentian bezala bestetan ere ministroaren egin geiak bardin zire-

nez, erran du : *Nous l'espérons !* Nahiz etzen elhesta luche, khanbera esker zolakoak zinez bola erazi dutu haren erranak. Dioie, laor ourtheren buruko, khanberalat utzultzen balinbada badukiala beste hori uduriko arrapostubat emaiteko.

Goure departamentuko deputatiak ichil zirelako fama orozbatkoz hola galdurik dateke. Hatik egiaren erraiteko, nihaorek ikhousi eta entzun beitut, aiphatu egun hortan beno lehen batak ahoa zabaltu zian. Houna nouiz eta noula. Behin deputatiak bildu ziren. Biltzarren hatsarrian etziren erdiak baizik : aitzina eman zien halere bakhoitzak bere lanari. Goure gain-tiko houra, araoz ezpeitzen barnia hutsik, lokhartu zen eta han zegoen jargia gibelari arrimu, erdi etzanik, besoak kurutchaturik sabelgañen, nouiz eta zerbaitek iratzarririk, izigarriko aharraosibat egin beitzian. Oro utzuli, hañ beitzen handi herotsa, eta erriz lehertu, deputatiak oro, bestiak beno haboro. Aharraosiaren egilia zoroturik bezala, bazterretarat sos, ezpeitzen dudatzen ere-agitu zenaz. Han ziren deputatu haboroak ordian, etzielakoz lagun houra ezagutzen, bata bestiari : « Eta zouintakoa da hori ? » Azkenekotz jakin zien. Eztereiziet erranen nik ere nour den ; bena galtha ezazie ; bada jente, hori dakianik.



## PELOTAKAZ

~~~~~

**A**ZKEN agorri-la urhentzian izan dira Lestarreko plazan pelota partida ederrak. Dioie zounbaitetek pelotakari haboroak egin ahal zukienaren petik egon direla : halere joku ederrak ziren eta ezgira Ziberoan kostumaturik halako usu ikhoustera. Dugun zerbait pelotakaz gazterian pelotaren amorioa

phitz erazteko, ahal bada. Ezi oraiko denboretan ezta goure herrian jokulari aiphaturik bakant elibat bai-zik, saldoka badenian Laphourdi altian.

Nourbaitek izkiribatzen zian diala bi ourthe Dona Johane Lohitzuko jei ederretarik landan : « Ikhusiko othe dugu sekulan gehiago Frantzian segurrik holako arrabot partidarik ?... Akabo dira oraietik pelotari Frantziakoak. Egia erraiteko irañ ere badie orano gelditzen zaizkun zahar horik. Biha Chilhar, Patzola, Ottharre eta Ciki ; hoiek phuru luzaz chutik eduki die goure ouhouria, eta guziek ouhoure zor deriegu.

« Gazterik bada, etzaie ihountik landan agertzen : ez Ziberoran ; ziberotarrak begode dantzari ; — ez Bachanabarren ; Bachanabartarrak gaskouintzez doatza geroago eta haboroago ; — eta Laphourdin, aldiz, oraiko gaztiak nahiago dira, pelotan ari beno, ostatu zokhotan higatu eta zorotu. Bleka hortan azkarki ari dira zounbait, badaiteke. Houn da segur hori arrabotian aritzeko plaza aski luzerik ezten herrietan ; bena diot berriz ere, zerda blekako partidarik ederrena arrabotekoaren altian, herribatetan chit eliza bestaren ouhou-  
ratzeko ? »

Ziberoko plaza guziak, batez bestiak, llabur dira, eta haietan eztaiteke blekarik baizik egin. Maoleko arrabotia ere orai berri goratu eta zabaltu, bestetako hurruntik jin jokularien gatik. Aldatze horrek eraziren dutia arrabotian eta bota luzian arizaliak ? Nahi nuke holako esparantchabat hazi gogoan, bena hain da frantzimanturik edo biarnesturik Ziberoko hiri gehiena, noun beldur izateko beita uskarareki itzal dadian goure joku zaharraren tchestia. Plaza ederra badate ja ari nahi dukianarentako.

Jokukariek dioie eta bethi erranen ere, araoz, blekako jokiak ezdukiala sekulan arrabotekoa balioko : Ameriketako eta Espanako gisa, bere saihetseko pharete handirekin ;... hounaintiko zounbait trinketen antzo, bere bi taolet eta laor pharetekin ; blekako jo-

kia indarkako jokubat da, adreziatzko beno. Trinketeko sare-joaz kanpo, bethi kasik ukhaldi berak, azkar eta eder, buruko kalkul hanbatik ez, zouñek luzazkiago jo houniala, ala aidetik ala phounpatik, ala errebesetik, eta azkenian, zouñek hatsa iraikorrago.

Lestarreko azken bleka esku hutsezko partidari es-tugu ikhousi, bena izan da zouin eretzetan, phuntu ehun eta zazpi kolpu, edo haboro ere, irañdienik. 60 edo 70 ukhalditako phuntiak nouiz nahi baziren Dona Johane Lohitzuko partidari. Gogoan duzie zer leher aldiak bildu dutien blekari hoiek.

Ikhousi die ere diala aspaldichka, holako partidabat mendiaz bestaldeko herribatetan, Azpeitian: phuntu bakhoizetik landan, urhentzialat, jargiak behar beitzutien ekhari, hatsez asetzeko, lao blekan arizaler. Berrogeietan egin partida, hogeia eta hamarna behar izan zen phartitu bi oren eta erdiren burian. Areta español pelotariak ihize gaitzak dira.

Erran behar da, halere, holako blekari gaitzen arteko partidaren ikhousia eder dela, nahi bada bethi jo ukhaldi berak direnegatik.

Lege zaharreko pharete aphaagoekin, hersiagoekin, saihets gabekoekin eta haien gradoko barna zolekin, halako dira Ziberoan, adrezia eta chikana haboroekin, eta ere llaburkiago hount diraitezke phuntiak.

Lehenagokoak ari baziren pelotan zour phezabatekin, haien ondokoak esku larriekin, oraiko chistroen erabiltiak chahu khanbiatu du pelota jokia: eremiak handitu behar izan zaitzo, chediak hurruntu, eta erran daiteke chuchenago igorten diela pelota.

Blekan berheziki ikhousitako da noula usutu den khinperreko edo errebes ukhaldia, haboroek besaña bezañ ehi eta azkarkiago ja emaiten beitie. Lestarreko plazan ikhousi dugu ezin sinhetsizko Arue blekariaren ukhaldi errebesaren indarra eta segurtarzuna.

Blekako jokiak badutu bere houn uniak: hartan trebatzen da mouthiko gaztia, phounpa lasterren al-

tchatzen, eta airialateko peloter pharutzen. Ezta houra bezalakorik phernen zalhetzeko, eta ezkoletan haorrer egin erazten dien gymnastique dena beno hanitchez hobe da.

Bleka esku hutsian azkar eta trebe dena, ehi eta laster bilha daite arraboteko botari haituzkoa, Laphurdin Ziki egin den bezala.

Plaza laburregiak diren herrietan, blekan phuru ari bite mouthiko gaztiak; bena bethi gogoari hao emanaz, beste zounbait plazetan, laster treba daitezkiela, arraboteko joku zabaliam. Hala egin da Chilhar jokulari aiphatia; halaber Ahetzeko ziren Borotra, laor anaiak: etzien ez bere herrian arraboteko plazarik, eta badakigu halere zer arrabotari ederrak bilhatu ziren. Batak, erran behar da, ezkoletan zelarik, Ahetzetik hanpo, ikhasi zian arraboteko jokia: houra bezalako guti ikhousi die plazetan. Bena haren birour anaiak ere, sor herrian blekan baizik ari izana gatik, laster aozoko herrietan joku luzian trebatu ziren. Noun halako ordartebatez, houn beitziren laor anaiak berbera, Frantziako edo Españako laor arrabotari hobenen kountra aritzeko.

Ziberotarrek ikhas ahalko die, zoun bere herrietan blekan baizik ez ari izanik ere, arrobotu joku luzia Lestarreko plazan. Gutti da Laphourdin ere houra bezañ ederrik, eta Maoletarrek ez tie segurki higaturen: badie beste traholarik.

Jokukariak planitzen hasten dira sarri ez tatekiala arrabotian arizalerik. Oraikoak zahartzen ari dira eta ihountik ere etzaie agertzen ordaririk. Zertako hori? Batek dioie blekako joku moudaberrikoan lehertzen direla mouthiko gaztiak; besaña eta besoaren aidostartzuna hortangaltzen dutiela, eta luzaz blekan ari izan ondoan ez tatekiala bilha arrabotari houn. Holako arrazourik eztugu Ziberoan: plazak oro hersi eta apha direlahoz leheneko gisa.

Zertako orano ezta oraiko gaztetan agertzen zahart-

zen ari zaizkun pelotakari hoiien ondokorik? Zeren eta hanitxek ezpeitie gogorik edaten edo orritzen aritzeko baizik ostatu chokoetan, kartak eskietan orrenak eroaiten dutielarik, eztirenian beste nounbait kotapilloten oundotik. Zounbait badira hañ herabesti, hañ ezachol, hañ uskaldun-odol gabiak, egundano menturaz ezpeitie pelotabat hounkitu.

Lehenago Uskal Herri guzietan, gizoun gaztiak zaharrak bezala, etcheke lanetarik libro zirenak oro, igantetan bazoatzan Elizalat, bezperetan ederki khanduz aritzera. Gero ofizioetarik jalkhitian ehi khaositen zen haien artian doibat pelotakari partidabaten hountzeko. Ari etzirenak so zagodian, segurki ostatiala joanik beno hobe beitzen. Eztu hanitx ourtherik Lestarreko plazan ere bezperetarik landan igantaldi houn guziez bazela botu luzeko partida ederrik : orai bestelakorik da. Artetarik, nouzian behin bleka partida tcharbat, eta plaza beherian beharra gañia hartzen ari da.

Bada beste gaizabat ere oraiko ordietan, pilotari izaitetik goure gaztiak ephantchatzen dutiana. Houra da soldagoa, eta ezin ukhatia da. Soldagoak beste zounbati ere eztu ogen egiten? Ala aperendiz, ala ustudiant, ala ofiziale, ala tratulant..., bakhoitzak bere kargia eitzi behar lege horren uztarpian egoiteko. Gero, usian, zerbutchutik landan leheneko lekhu eta irabaz bidetan beste batzu sarthurik atzamaiteko. Ezpeita segur atse egiteko! Pelotakak ere egari dutu aiphatu ofizio hoiek bezala soldadogoaren gaitz uniak, eta aitzinetik pelotakan enjogi zirenek, uskarareki eta errelijioniareki galzen joku eder hartako zien tchestia. Bena soldadogoak kalte egin badu pelotakari, egin dero eman dialakoz soldado gazter ostatialat eta lekhu tzarretarateko mengoa.

Errana da gaiza guzietan hatsarreat behardela, eta eztela laborari houn bilhatzen lur lanetan ariz baizik. Halaber pelotakan. Haregatik badirade nahi bezainbat aririk ere ezpeitira haboro pelotakari houn, laborari



houn beno atherako : ala indar edo benia eskazez, ala sorkhuraz herrenbes edo moldegaitz izana gatik. Holako guti da Ziberoan.


Heben Lestarrekoaz bestalde ezta botu luzian edo arrabotian aritzeko plaza aski luze denik bena haor pelotakako tcheste direnek, behar lukie iseiatu, pharetiari joka aritzia eitzirik, biazka edo laonazka, aidez aide pelotaren igortera eta arraferatzera : halakoak segur arraboteko jokulari houn bertan bilhaturen dira. Haslitian lehenik hortan esku huska, zounbat nahi jokia bleka bezañ erretch ez izanik ere ; bertan chuchen igorriko die pelota, hatsarrian huts hanitch egina gatik, eta begi kolpia hatzamanen die.

Ezta plaza beharrik hola aritzeko : bide berria edo sorho bat. Gaskoina zen pelotakari aiphatia, bere hamabi hamahirour ourthetan ulhañ zagoelarik Ahazparneko landetan, hola hasi zen, oihaneko aozo lagun zounbaiteki. Gero kharrikari hullan etchekeak utzuli zitzaitezian, abiatu zen eskularru moutz, ordu hartan usatzen zutien bezalakobatekin, bere joku ezinago ederraren emaiten.

Etsenplu hortarik ageri da, haorzarotik hasi behar dela joku luzian. Hortan azkar denak goithuko dutu nouiz eta noula nahi blekan arizaliak, Gaskoinak egin zutian bezala, bizpahirour aldiz, bere denborako blekari gothorrenak.

Ezta zounbaitek ouste dien bezañ gaitz arraboteko jokiarene ikhastia. Errandugun bezala mouthiko gaztetan guti da zouin herritaz kanpo, nounbait aidez aide igortian treba ezdaitekjanik, plaza azki luze ez izanik ere.

Blekari houn batetik, chit esku barnia hutsian aritzeko zall eta iraikor dian batetik berhala egiten dela arraboteko botari hounbat. Laor edo bost partida egin orduko ehi ikhasi duke aski chuchen eta zorrozki bôtatzen. Halaber aidez aide igortian azkarki usaturik den mouthiko gazte batek arte llaburez ikhasiko du orobat



Lestarreko plaza 1800 an

phareteko eta pik ondoko peloten moulede hounian erreferatzen. Gero aritziak emaiten du landanko eta haboroagoko adrezia, zalhetarazuna, begi kolpe ernebat, eta buruzko jokia.

Igantearrastirietan, bezperak khantatuz geroztik, badukie goure mouthiko gaztek azki othoitze eginik; hantik goiti liberti ditian ouneski. Eztuaspaldi, hañ chuhen, zounbait aphezakupuk gomendatu diela bere manupeko erretorer, egin dezen bakhoitzak bere herrietan, gizon gazten bilkhura edo aorhidegoa, igantiaren berere mouthiko gazte haier behar den bezala eroan erazteko, eta ofizitoearik landan ouneski liberti erazteko.

